

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2022ko azaroa

Aurkibidea

1. Hazkunde ekonomikoa
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Enpresarien konfiantza
5. Inguruneko hazkundea
6. NDFen aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %3,9 hazi zen hirugarren hiruhilekoan.

Lanpostuen kopurua %2,0 handitu zen denbora horretan, urte arteko tasan.

2. Enpleguak gora egin du berriro Euskadin.

Hirugarren hiruhilekoan, landunen hazkunde tasa %2,1 izan zen.

3. KPI indizea apaldu egin da eta bi digituko igoerak alde batera utzi ditu.

Argindarraren, erregaien eta garraioaren merkatzeak azaltzen dute inflazioaren jaitsiera hori.

4. EAEko enpresek ezkortasun handiagoa erakutsi dute laugarren hiruhilekoari buruz .

Ingurunearen okertzeak jarduerari buruzko igurikimenak kaltetu ditu.

5. Ekonomiek hainbat abiaduratan egiten diote aurre egoera zailari.

Euroguneak erdira jaitsi du urte arteko hazkunde tasa.

6. Okerrena oraindik iristeke dagoela ohartarazi du NDFk.

Munduko ekonomia %2,7 baino ez da haziko datorren urtean.



EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %3,9 hazi zen hirugarren hiruhilekoan


BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO BPGA.

3. HIRUHILEKOA

%3,9



Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %3,9 hazi zen 2022ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi beraren aldean. Tasa hori bat dator Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak bere azken agertoki makroekonomikoan egindako aurreikuspenarekin. BPGaren bilakaerak adierazten du Euskadi moteltzeko fase batean dagoela urtearen hasieratik. Une horretan, hazkunde tasa %5,8 izan zen, eta bigarren hiruhilekoan %5,0raino leundu

zen. Moteltzeko joera hori sektore guztietan gertatzen da, eskura dagoen koiunturako informaziotik ondorioztatzen denez. Inflazio handia, interes tasen igoera eta ziurgabetasuna dira erritmo galeraren arrazoi nagusiak. Herrialde garatuaren multzoan ere gertatzen da hori.

Hiruhilekoen arteko terminoetan, EAEko ekonomiak %0,2ko hazkundea eskuratu zuen, aurreko aldietako gehikuntza tasetatik (%1 baino gehiago hazi baitzen) urrun.


BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO BPGA.

3. HIRUHILEKOA

%0,2




ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO ENPLEGUA

3. HIRUHILEKOA

%2,0



Kontu ekonomikoen arabera, enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, urte arteko %2,0 hazi zen hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhileko bikainetan baino tasa txikia-go, baina oraindik oso esanguratsua den erritmo batean. Hori horrela, azken urtean lanaldi osoko ia 20.000 lanpostu sortu dira eta guztizko kopurua ia milioi bat enplegura iristen da

gaur egun. Kopuru hori 2007ko amaieran eta 2008ko lehen erdian baino ez da lortu, hain zuzen ere Atzeraldi Handia izenez ezagutzen den finantza krisia iritsi aurretik.

Hiruhileko arteko terminoetan, Euskadiko enplegua %0,3 handitu da, kasu horretan ere aurreko aldietako balioen oso azpitik, baina aurreikusitakoa baino gorago.


ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO ENPLEGUA

3. HIRUHILEKOA

%0,3



Iturria: Eustat.



Enpleguak gora egin du berriro Euskadin

BJA inkestak argitaratu berri dituen datuen arabera, Euskadik duela urtebete baino 19.600 landun gehiago izan zituen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, 967.200 landun izatera iritsi arte, eta horrek %2,1eko urte arteko aldakuntza tasa ekarri zuen, Gizarte Segurantzako afiliazioak aldi berean izan zuenaren oso antzekoa (%1,8) delarik. Era berean, enplegu sorrera horri


lotuta, langabeziaren beherakada nabarmendu behar da, hamahiru urtean lehen aldiz langabezia tasa %8tik behera kokatu baitzen. Zehazkiago, langabezia tasa bigarren hiruhilekoko %8,5etik egungo %7,9ra jaitsi zen. Beraz, EAEko lan merkatuak portaera positiboa erakusten jarraitu du, ziurgabetasun ekonomikoaren testuingurua gorabehera.

LANDUNAK. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa


3. HIRUHILEKOKO LANDUNAK

%2,1




LANDUNAK. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANDUNAK. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




Aurreko hiruhilekoetan bezala, gizonen parte hartze handiagoa izan zuten enplegua berreskuratzeko prozesuan, %2,2ko hazkundearekin. Beste aldetik, emakumezko landunen kopuruak %1,9 egin zuen gora aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, 2021ean hiruhileko batzuetan bilakaera positiboagoa erakutsi eta gero.

Sektoreek sortutako enpleguaren xehetasuna aztertzean, datu deigarri bat izan zen lehen sektoreak izandako hazkunde bikaina (%16,5), ziur asko mahats bilketa irailera aurreratu izanak eragin handia izan baitzuen. Era berean, eraikuntzak eta zerbitzuek hazkunde tasa positiboak lortu zituzten.


LANDUNAK. INDUSTRIA

Urte arteko aldakuntza tasa




LANDUNAK. ERAIKUNTZA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANDUNAK. ZERBITZUAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Sektore horietan kontzentratu zen enpleguaren hazkundea, %7,7ko gehikuntzarekin eraikuntzaren kasuan eta %2,9koa, berriz, zerbitzuen kasuan. Aitzitik, industriaren sektorea ez da suspertu eta tasa negatiboetan jarraitzen du (-%2,7), aurreko urtearen erdialdean bilakaera positiboa izan ondoren.


Iturria: Eustat.

INFLAZIOA

KPI indizea apaldu egin da eta bi digituko igoerak alde batera utzi ditu

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioa %8,5era jaitsi zen irailean, bi hilekotan bi zenbakiko hazkunde tasak jaso ondoren. Hala, KPIa azken urteetako balio handienetatik urruntzen joan zen pixkanaka, eta bi hilabetez jarraian jaitsi da aldakuntza tasa. Jaitsiera elektrizitatearen prezioen merkatzeak eta, neurri txikiagoan, erregaien eta garraioaren prezioen murrizketak eragin dute.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2020	2021	2022ko iraila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	8,5	8,5
Azpiko inflazioa (%79,5)	0,8	1,0	6,1	4,9
- Elikagai landuak (%15,8)	1,7	1,4	12,6	2,0
- Industria ondasunak (%22,7)	0,3	1,0	5,6	1,3
- Zerbitzuak (%41,0)	0,8	0,7	3,8	1,6
Hondar inflazioa (%20,5)	-4,0	12,1	17,9	3,6
- Landu gabeko janariak (%9,3)	4,0	2,6	13,4	1,2
- Energia (%11,2)	-9,4	21,3	21,3	2,4


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Halaber, azpiko inflazioa hiru hamarren jaitsi zen abuztuko datuaren aldean, %6,1ean gertatuz. Jaitsiera horri esker, goranzko joera hautsi zuen, baina egia da inflazio globalak izan zuena baino beherakada txikiagoa izan zuela adierazle horrek, lehengai jakin batzuen portaera baliatu baitzuen, hala nola petrolioarena eta elektrizitatearena. Lehenengoaren prezioa ez da 100 dolarretik gorakoa izan irailean, eta elektrizitatearen prezioa, berriz, apaldu egin da, Espainian

eta Portugalen gasari ezarri zaion muga dela eta. Bilakaera horren ondorioz, etxebizitza eta garraio taldeak apaldu ziren gehien, hurrenez hurren %25,9tik %14,7ra eta %10,5etik %8,1era igaro baitziren. Aitzitik, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldeak erakutsi zuen igoerarik handiena (%13,9) 1994ko urtarrilean talde horren bilakaera erregistratzen hasi zenetik, nahiz eta elikagaien lehengaien prezioak merkatu egin diren.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2022ko iraila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	8,5	8,9	9,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	13,9	14,4	13,8
Edari alcoholdunak eta tabakoa	4,7	4,3	4,1
Jantziak eta oinetakoak	3,9	3,9	3,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	14,7	14,2	21,1
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	7,8	7,8	7,8
Osasuna	0,5	1,1	1,4
Garraioa	8,1	9,4	10,9
Komunikazioak	-2,5	-2,5	-0,8
Aisia eta kultura	3,5	3,4	4,6
Hezkuntza	1,9	1,2	3,8
Jatetxeak eta hotelak	7,4	7,9	8,5
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,9	4,1	3,4

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

ENPRESARIEN KONFIANTZA


EAEko enpresek ezkortasun handiagoa erakutsi dute laugarren hiruhilekoari buruz

ENPRESEN KONFIANTZAREN INDIZEA.

EUSKADI

2022ko 4. HIRUHILEKOA

42,0




Laboral Kutxak enpresen konfiantzari buruzko inkestan jaso duenez, EAEko enpresek etorkizun hurbilari buruzko ikuspegi ezkorragoa dute orain. Zehazkiago, enpresen konfiantzaren indizea 42,0 puntura jaitsi da, aurreko balioa baino zortzi puntu beherago. Igurikimenean okertze horren zati handi bat ingurunearen dinamismo faltagatik dator. Izan ere, enpresen %2,8k soilik uste du inguruak hobera egingo duela hiruhileko honetan, eta ia bi herenek uste dute okerrera egingo duela.

Adierazle hori osatzen duten atal guztiek aurreko hiruhilekoan baino puntuazio txikiagoa jaso dute hiruhileko honetan, eta okerrera egiteko joera luzatu dute. Fakturazioaren kasuan, adibidez, indizea 44,7ra jaitsi da, enpresen %15,7k ikuspegi baikorra baina %26,4k ezkorra dutelako. Halere, oraindik erdiek baino gehixeagok uste dute fakturazioa aurrekoaren antzeko mailan mantenduko dela. Jardueraren kasuan, %7,5 baikorra da, eta %34,3k uste du okerrera egingo duela.


FAKTURAZIO IGURIKIMENAK

Indizea




JARDUERA IGURIKIMENAK

Indizea




ESKARIEN IGURIKIMENAK

Indizea




PREZIOEN IGURIKIMENAK

Indizea



ERRENTAGARRITASUN IGURIKIMENAK

Indizea




Espero den jarduera gutxiago hori eskaera berri gutxiago jasotzearen eta prezioak igotzearen ondorio da. Hala, enpresen %28,7k uste dute eskaerak jaitsi egingo direla, eta %12,2k, berriz, igoko direla. Prezioei dagokienez, igoko (%20,1) eta jaitsiko (%19,7) direla uste dutenen artean ia erdibana banatzen dira iritziak, eta gehienek egungo mailari eutsiko diotela pentsatzen dute.

Iragarpen txarrak gorabehera, inbertsioari buzurko itxaropenak ez dira oso kaltetuak izan, eta enpresen laurden batek baino gutxiagok uste du jaitsi egingo dela; %10,6k, aldiz, handitu egingo du, eta ia bi herenek eutsi egingo diote egungo mailari.


LANGILE IGURIKIMENAK

Indizea



INBERTSIO IGURIKIMENAK

Indizea



Iturria: Laboral Kutxa.



INGURUNEN HAZKUNDEA


Ekonomiek hainbat abiaduratan egiten diote aurre egoera zailari

TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPGA
3. HIRUHILABETEA
%3,9

Txinako BPGA %3,9 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan izan zuen moteltze handia atzean utziz. Herrialdeak ezarri duen zero-Covid politikak ekarri zituen itxiera zorrotzen amaierak eta oinarritzko efektuaren laguntzak –2021eko hirugarren hiruhilekoan, Asiako erraldoiak botila lepo nabarmenei egin zien aurre– azaltzen dute igoera hori. Hala ere, bilakaera zalantzakoa da; izan ere, azken adierazleek seinatzen dute industriak eta, bereziki, manufakturen sektoreak erritmo onean egiten dutela aurrera, baina zerbitzuak eta txikizkako kontsumoa moteldu egiten direla.




AEBeK, bestalde, atzeraldi teknikitik atera ziren eta hiruhileko arteko %0,6 hazi ziren hirugarren hiruhilekoan (urte arteko tasa %1,8 izan zen). Lan merkatuaren, familien gastuaren eta industria jardueraren hainbat adierazleren sendotasunak barne eskariaren erresilientzia berresten du. Baina ezin da baieztatu okerrena atzean geratu denik. Testuinguru globalaren narriadurak, dolarren sendotasunak eta interes tasen igoerek beheranzko arriskuak areagotuko dituzte 2022ko azken txanparako eta, bereziki, datorren urterako, eta horrek atzeraldi berri baten probabilitateak handituko ditu.

AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa

AEBETAKO BPGA
3. HIRUHILABETEA
%1,8



EUROPAR BATASUNEN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



Europar Batasunak ez zuen lortu munduko baldintza ekonomiko zailak saihestea, eta ikusi zuen bere BPG ia erdira murritzten zela hirugarren hiru hilekoan, aurreko hiruhilekoan lortutako tasaren aldean. Krisi energetikoa da Europako narriaduraren arrazoi nagusia eta neguak aurrera egin ahala okerrera egingo duela espero da. Zehatzago esanda, kontinente zaharra %2,4 hazi zen, eurogunea baino hiru hamarren gehiago. Bizitasun txikiago hori lehen zenbatespena argitaratu duten eremuko herrialde guztietara zabaldu zen. Besteak beste, Italia %2,6 hazi zen, Alemania %1,1 eta Frantzia %1,0. Beste hiruhileko batez, Espainiako ekonomiaren bilakaera nabarmendu zen; izan ere, hazkunde handiagoa lortu zuen, %3,8koa hain zuzen ere.


EUROGUNEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: ELGE, BEA, Eurostat eta INE.

NDF-REN AURREIKUSPENAK

Okerrena oraindik iristeke dagoela ohartarazi du NDFk

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




NDFk panorama iluna erakutsi du munduko ekonomiarentzat urrian egindako azken txostenean. Errusiaren inbasioak, energiaren eta elikagaien arazoekin; inflazioaren presio iraunkor eta zabalak (hamarkadetan ikusitako handiena baita) eragindako bizitzaren kostuaren igoerak; fenomeno horri aurre egiteko moneta politikaren gogortzeak; eta Txinaren moteltzeak, covid-aren agerraldiek oraindik ere garrantzi handia baitute, munduko hazkunde aurreikuspenak berriro beherantz berrikustea ekarri dute.

NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2021	2022	2023	2022	2023
Munduko ekonomia	6,0	3,2	2,7	0,0	-0,2
Ekonomia aurreratuak	5,2	2,4	1,1	-0,1	-0,3
AEB	5,7	1,6	1,0	-0,7	0,0
Eurogunea	5,2	3,1	0,5	0,5	-0,7
Alemania	2,6	1,5	-0,3	0,3	-1,1
Frantzia	6,8	2,5	0,7	0,2	-0,3
Italia	6,6	3,2	-0,2	0,2	-0,9
Espainia	5,1	4,3	1,2	0,3	-0,8
Erresuma Batua	7,4	3,6	0,3	0,0	-0,1
Japonia	1,7	1,7	1,6	0,4	-1,5
Garatzen ari diren herrialdeak	6,6	3,7	3,7	0,1	0,2
Txina	8,1	3,2	4,4	-0,1	-0,2
India	8,7	6,8	6,1	-0,6	0,0
Errusia	4,7	-3,4	-2,3	2,2	-1,0
Brasil	4,6	2,8	1,0	1,1	-0,1


EKONOMIA AURRERATUAN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



EUROGUNeko BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Zehazki, munduko BPGA 2021eko %6,0tik 2022ko %3,2ra eta 2023ko %2,7ra motelduko da. Munduko finantza krisia eta pandemiaren fase gogorrena alde batera utzita, hori da 2001etik izan den hazkunde erritmo ahulena. Erakunde horrek aurreikusten du 2023an munduko ekonomien heren bat baino gehiago uzkur-tuko direla, besteak beste, Alemania (energia errazionamendua jasan dezake) eta Italia. Aldi berean, AEBak eta Txina ez dira haziko. Inflazio-ari dagokionez, 2022rako %8,8ko tasa kalkulatu da eta 2023rako, berriz, %6,5era jaitsiko da.

Hala ere, hau ez da panorama txarrena. Izan ere, egoerak okerrera egiten jarraitzen badu, era-kundeak uste du %25eko probabilitatea dagoela 2023an munduko ekonomia %2,0ko minimo his-torikoa baino gutxiago hazteko.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	III
BPG	-9,6	5,9	4,7	4,9	5,8	5,0	3,9
Barneko azken kontsumoa	-8,9	5,2	2,9	3,8	2,6	1,5	—
Familien kontsumoa	-12,1	5,6	2,5	4,0	3,2	3,0	—
Administrazioaren kontsumoa	2,9	3,9	4,4	3,3	0,6	-3,1	—
Kapital eraketa gordina	-12,1	6,0	2,9	3,0	4,9	5,0	—
Barne eskaria	-9,7	5,4	2,9	3,6	3,2	2,4	—
Esportazioak	-15,9	12,7	13,6	13,5	13,5	13,7	—
Inportazioak	-15,8	11,6	12,6	9,3	10,4	8,5	—
Lehen arloa	-16,9	21,9	29,1	14,5	-1,7	-3,2	—
Industria eta energia	-12,2	6,1	2,4	3,7	6,5	6,1	—
Eraikuntza	-14,4	4,5	4,7	2,5	1,9	1,5	—
Zerbitzuak	-7,9	5,8	5,2	5,5	6,2	5,6	—
Balio erantsi gordina	-9,4	5,9	4,7	5,0	6,0	5,4	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-11,9	6,1	4,2	4,1	3,9	3,2	—
Enplegua	-6,2	5,9	5,1	5,0	4,9	3,7	2,0

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2022		2022	2023				2023
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	3,9	2,4	4,3	2,2	1,7	1,7	2,8	2,1
Barneko azken kontsumoa	1,6	1,2	1,8	1,3	1,3	1,3	1,7	1,5
Familien kontsumoa	2,5	2,0	2,7	1,3	1,1	1,2	1,7	1,4
Administrazioaren kontsumoa	-1,4	-1,5	-1,4	1,4	1,9	1,8	1,5	1,7
Kapital eraketa gordina	5,1	4,3	4,8	3,3	2,4	2,5	3,3	2,9
Barne eskariaren ekarpena	2,5	2,0	2,5	1,8	1,6	1,6	2,1	1,8
Kanpo eskariaren ekarpena	1,5	0,4	1,8	0,3	0,1	0,1	0,7	0,3
Lehen arloa	-6,3	-7,3	-4,6	-0,2	-11,3	-4,5	-2,0	-4,7
Industria	5,2	2,9	5,2	1,4	0,3	-0,3	-0,5	0,2
Eraikuntza	1,6	1,8	1,7	1,6	2,9	3,3	3,1	2,7
Zerbitzuak	4,2	2,8	4,7	2,9	2,7	3,0	2,9	2,9
Balio erantsi gordina	4,2	2,7	4,6	2,4	2,0	2,2	2,1	2,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,3	1,6	2,8	1,9	1,7	1,6	1,4	1,6
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,0	2,7	1,0	1,0	1,0	1,8	1,2
Landunak (BJA)	1,2	1,4	2,0	0,7	0,9	0,8	1,1	0,9

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
Confebask	5,9	—	Laboral kutxa	3,6	2,7
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	4,3	2,7	BBVA	3,5	1,1
Ceprede	3,8	1,3			

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	III
BPG	-11,3	5,5	4,2	6,6	6,7	6,8	3,8
Kontsumo pribatua	-12,4	6,0	4,0	4,6	3,5	2,5	1,5
Kontsumo publikoa	3,5	2,9	3,1	-0,1	-1,0	-2,9	-2,7
Kapital finkoaren eraketa gordina	-9,7	0,9	-3,0	-1,7	3,5	4,9	6,3
- Aktibo finko materialak	-11,1	0,1	-5,0	-3,4	2,6	4,4	6,3
- Eraikuntzan	-10,2	-3,7	-6,7	-3,9	-0,2	4,4	5,8
- Ekipamendu ondasunetan	-13,3	6,3	-3,0	-3,3	6,8	4,2	7,1
- Jabetza intelektualaren produktuak	-2,5	4,7	6,7	6,3	7,4	7,0	6,3
Nazio eskaria (ekarpena)	-9,1	5,2	3,8	4,9	3,8	1,9	0,8
Esportazioak	-19,9	14,4	15,2	16,4	19,9	23,1	18,0
Inportazioak	-14,9	13,9	14,3	11,6	12,2	8,8	9,8

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
AFI	4,3	1,8	Mapfre Economics	4,1	1,9
BBVA	4,1	1,8	Oxford Economics	4,3	1,0
CaixaBank	4,2	2,4	Repsol	4,0	2,0
Merkataritza ganbera	4,1	2,2	Santander	4,3	1,4
CEEM-URJC	3,9	2,0	Metyis	3,8	1,4
CEPREDE-UAM	4,7	2,0	Universidad Loyola Andalucía	4,2	2,6
CEOE	4,3	1,5	Batez bestekoa	4,2	1,9
Equipo Económico (Ee)	4,3	1,9	Gobernua (2022-10)	4,4	2,1
EthiFinance Ratings	4,3	1,9	Espainiako Bankua (2022-06)	4,1	2,8
FUNCAS	4,2	2,0	Europar Batzordea (2022-07)	4,0	2,1
ICAE-UCM	4,2	2,2	NDF (2022-07)	4,0	2,0
IEE	3,9	1,2	ELGE (2022-09)	4,4	1,5
Intermoney	3,7	2,0	Consensus Forecast (2022-10)	4,4	1,2

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Merkataritza ganbera, CEEM-URJC, Equipo Económico (Ee), EthiFinance Ratings, ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	III
AEB	-2,8	5,9	5,0	5,7	3,7	1,8	1,8
Txina	2,0	8,1	4,9	4,0	4,8	0,4	3,9
Japonia	-4,5	1,6	1,2	0,5	0,9	1,4	—
Kanada	-4,9	4,5	3,8	3,2	2,9	4,6	3,6
Europar Batasuna	-5,7	5,4	4,2	5,0	5,6	4,3	2,4
Eurogunea	-6,1	5,3	3,9	4,8	5,5	4,3	2,1
Alemania	-3,7	2,6	1,8	1,2	3,5	1,7	1,1
Frantzia	-7,8	6,8	3,6	5,1	4,7	4,2	1,0
Erresuma Batua	-11,0	7,5	8,5	8,9	10,9	4,4	—
Italia	-9,0	6,7	4,8	6,5	6,4	4,9	2,6
Herbehereak	-3,9	4,9	5,5	6,2	6,6	5,3	—

Iturria: Eurostat eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2022KO URRIA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
AEB	1,7	0,2	8,0	3,9	3,7	4,3
Japonia	1,5	1,5	2,2	1,6	2,6	2,5
Kanada	3,2	0,6	6,8	3,5	5,4	6,1
Europar Batasuna	3,1	0,3	8,4	5,7	—	—
Eurogunea	3,0	0,0	8,3	5,8	6,8	7,2
Alemania	1,4	-0,9	8,1	6,8	5,3	5,6
Frantzia	2,5	0,3	5,4	4,0	7,3	7,6
Erresuma Batua	4,1	-0,3	8,9	6,4	3,8	4,4
Italia	3,3	-0,1	7,6	5,0	8,3	8,6
Espainia	4,4	1,2	8,9	4,6	—	—
Herbehereak	4,6	0,7	10,3	4,9	—	—

Iturria: Consensus Forecast.